

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN
PRÍNCIPE DE VIANA**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**SESIONES DELIBERATIVAS
ACCESIBILIDAD Y VISIBILIDAD**

**ERABAKITZE BILERAK
ESKURAGARRITASUNA ETA IKUSGARRITASUNA**

HUARTE, 25 de Octubre de 2016

UHARTEN, 2016ko Urriaren 25ean

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	1
2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA	2
3.-PARTE-HARTZAILEAK	2
4.-BILERAREN GARAPENA	5
5.-LABURBILKETA ETA AGURRA	11

1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik. Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako 7 parte-hartze bilera antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Prozesuaren azkeneko fasea Erabakitzailea da, zinetarako 4 bilera antolatu baitira gai zehatzen inguruan era sakonagoan eztabaidatu eta erabaki ahal izateko. Txosten hau Urriaren 25an Uharteko Arte Garaikideko Zentroan burutu izan zen "Eskuragarritasun eta Ikusgarritasun" inguruko Erabakitzeko Bileran jasotakoa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere sormen arloko eta Nafarroako kultura gestoreen ordezkarietara zuzendu izan zelarik.

2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA

Kultura Eskuragarritasun eta Ikusgarritasunaren inguruko erabakitze bilera Uharteko Arte Garaikideko Zentroan burutu izan zen 2016ko Urriaren 25ean, 16:30 eta 19:30 orduen bitartean.

Bileran 12 pertsonak hartu izan zuten parte, hauetako batzuek sormen sektoreko ordezkariak zirelarik eta beste batzuek herrietako kultura kudeaketa arlokoak.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak izan ziren:

1. Parte-hartze prozesua erabakitze fasean aurkeztea.
2. Bi gaien inguruen erabakitzea:
 - Kultura Eskuragarritasuna.
 - Kultura Ikusgarritasuna.

Erabakitze bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren **agurra eta ongietorria**.
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. **Parte hartze-erabakitze** lanaren talde dinamika.
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana**.
5. Talde lanaren **bateratzea**.
6. Amaiera eta agurra.

Bilera burutu aurretik, deituak izan ziren pertsonak bileraren metodologia azaltzen zen eta aurretik proposamenak bidaltzeko aukera eskaintzen zuen maila bat jaso izan zuten. Aurretik 3 proposamen jaso izan ziren, hauek bidali izan zituzten bi pertsonak bilerara joatea posible izan ez zutelarik; hau dela eta, proposamen hauek ez ziren pertsonalki aurkeztuak izan. Proposamen hauek Erabakitze Fasearen txostenean erantsiak izango dira Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Parte-Hartze Planaren barne landuak izan daitezten.

Hauek izan ziren erabakitze bileran landu izan ziren gaiak:

1. GAIA- KULTURA BALIABIDEEN INFORMAZIOAREKIKO ESKURAGARRITASUN ETA IKUSGARRITASUNA.

- A.- NAFARROAKO KULTURA AZPIEGITUREN MAPA.
- B.- ONDARE BALIABIDEEN ZERRENDA.
- C.- NAFARROAKO KULTURA AGENDA.

2. GAIA- IKUSGARRITASUNA ETA BALORATZEA

- A.- SORMEN SEKTOREAREN IKUSGARRITASUNA ETA BALORATZEA.
- B.- HERRI KULTURAREN IKUSGARRITASUNA ETA BALORATZEA.

Bilera eraginkorragoa egitearren, parte-hartzaile bakoitzak parte hartzeko gai bat aukeratu, zuen lehentasunaren arabera. Horrela, aurkeztutako bi gaien inguruan erabakitze bi lan talde eratu ziren. Honen ostean egindako lana komunean jarri egin zen eta baita galderak eta eztabaidarako aldia izan zen ere.

3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
IOSU ROYO GARCÍA	NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA
BETISA ANDA ARRUABARRENA	AYUNTAMIENTO ALTSASU/ALSASUA
CELIA ESLAVA SOTÉS	
MABEL URRA GÁMEZ	SEDENA
CARMEN GOYENECHÉ AGUIRRE	SEDENA
JUANKAR ORNAT	NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA
MARCELA VEGA HIGUERA	CALÍCRADES
MIKEL CAMPO ARGOTE	
ESTITXU ARROYO SÁNCHEZ	
IRANTZU SANZO SAN MARTÍN	UPV.FACULTAD BELLAS ARTES
PILAR MARTINEZ DE ORCOZ	AYUNTAMIENTO DE VIANA

KUDEAKETA	
Izen deiturak	Erakundea
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ABEL DEL REY PALACIOS	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
JAGOBA ESAIN AZCONA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
MARÍA CAMINO BARCENILLA TIRAPU	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA
NURIA ÁLVAREZ AJURIA	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

4.-BILERAREN GARAPENA

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiko María Camino Barcenilla Tirapuk bertaratutakoak agurtzen ditu eta Javier Espinosa aurkezten du, Parte-hartze Prozesuaren koordinatzailea, EIN Hiri Arkitektura eta Ingeniaritzakoa, prozesuaren laguntza teknikoa.

Ondoren, EIN Hiri Arkitektura eta Ingeniaritzako Javier Espinosa Ochoak bertaratutakoak agurtzen ditu eta prozesuaren azalpen orokorra burutzen du eta baita parte-hartzearen dinamikarena ere.

Ondoren bertaratutako pertsonak 2 talde ezberdinetan bereizten dira bileraren parte-hartzeari hasiera emateko.

Azkenik bi taldeetako bakoitzean landu diren arloen gaineko azalpena egiten da.

Ondoren agertzen dira parte-hartze erabakitze bileran egindako ekarpen nagusienak.

1.- KULTURA BALIABIDEEN INFORMAZIOAREKIKO ESKURAGARRITASUN ETA IKUSGARRITASUNA
A.- NAFARROAKO KULTURA AZPIEGITUREN MAPA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Helburu nagusia kultura politika hobetzeko laguntza eskaintzea izan beharko zen. Horretaz aparte koordinaziorako tresna eta informaziorako osagarri izan beharko zen.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Beste helburu garrantzitsu bat baliabideak era askoz ere eraginkorragoan probestea da, elkarlan eta koordinaziorako ildoak ezarri.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mapa hau igorle anitz batera heldu litzateke; alde batetik herri eta eskualdetako kultura ordezkarietara, beste alde batetik kultura talde eta sektore honetako enpresetara eta azkenik, publiko orokorrera. Igorle hauetariko bakoitzak informazio jakin batean interes handiagoa izango du. Baimen ezberdineko perfilak eratzea egokia litzateke.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Maparen diseinua burutu baino lehen azpiegituren diagnostikoa egin beharko zen, eskuragarritasun unibertsalaren gaiak berebiziko garrantzia edukiz. Diagnostiko honetan azpiegiturak bildu beharko zituen, baita euren funtzioen deskribapena, prestakuntzak, erabilera nagusiak, etab. Diagnostiko hau berebizikoa da mapak kalitatezko informazio erabilgarria eskaini dezan.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Berebizikoa da diagnostiko horren emaitzek, mapa berarenaz gain, aurrekontu eta baliabideak izatea, gehien behar dituzten azpiegiturek euren hobekuntza ekintzei hasiera emateko, edota azpiegiturenganako eskuragarritasun eskasak duten zonaldeek hasteko ere bai.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Edukiei dagokienez, Azpiegituren Mapak gutxienez ondorengo informazioa bere baitan izan beharko luke: <ul style="list-style-type: none"> • Azpiegituren izendatze eta deskribapena. • Geolokalizazioa. • Kultura Agendarekiko loturak (ikus. C atala) • Tokian lan egiten duten elkarte eta talde nagusiak.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gutxienez elebiduna izan beharko zen, euskaraz eta gazteleraz aparte beste hizkuntzaren baten aukera aztertu litzatekeelarik.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Burutu beharreko lana probestu beharko litzateke eta diagnostikoa oinarritzat hartuta, eskuragarritasun unibertsalarekin erlazioa duten hobekuntzak burutzea; lau aspektuetan (fisikoa, ikusizkoa, kognitiboa eta entzunezkoa). ▪ Erakustak etab. dauden azpiegitura guztietan irakurketa errazaren irizpidea ezartzea beharrezkoa litzateke erabat.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Maparen oinarria Internet izan beharko litzateke web orrialde edo tankerako tresna baten bitartez, baita mugikorrenzako app batez osatuz ere. ▪ Web orrialdea itsuentzat erabat eskuragarria izan beharko litzateke. ▪ Helburu hau betetzearren jada existitzen diren tresnak erabiltzea komenigarria litzateke esfortzuen bikoiztea saihestearren.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Maparen sormena komunikazio eta hedatze estrategia indartsu batez lagunduta egon beharko zen.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Espazio ezberdinek dituzten erabilgarritasunen inguruko informazioa ere jaso beharko zuen, toki horietako erabilera ordutegiak kontuan hartuta.

1.- KULTURA BALIABIDEEN INFORMAZIOAREKIKO ESKURAGARRITASUN ETA IKUSGARRITASUNA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Azpiegitura publiko eta pribatuak jaso beharko lituzke.
B.- ONDARE BALIABIDEEN ZERRENDA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ondare Baliabideen Zerrendaren helburu nagusienetarikoa Erkidegoko Ondarea ezagutu eta eskuragarri izan dadin Nafarroako biztanleei informazio eskaintzea da. ▪ Beste helburuetariko bat Nafarroako historia eta memori historikoa baloratzea eta honen inguruko informazioa eskaintzea izango zen, ideologiez aparte. ▪ Azpiegituren Maparen kasuan bezala, Ondare Zerrendaren burutzea Ondarearen zentsu-diagnostiko batean oinarritu beharko zen. ▪ Ondare Zerrendak bi publiko ezberdinetara zuzenduta egon beharko zen, alde batetik publiko espezialista eta tekniko eta bestetik, gai horretan interesa izan zezakeen publiko orokorrari. ▪ Horrelako zerrenda baten sorrera probestu beharko zen bere baitan Ondare Immateriala eta baita paisajistikoa ere biltzeko. ▪ Zerrenda horrek bete beharko zuen funtzio nagusienetariko bat hezkuntza sisteman tresna gisa erabilia izatea izango zen, eskolatik habiatuta Ondarea ezagutu eta honen inguruan ikasteko baliagarria izango zena. ▪ Ondare Immaterialari dagokionez beharrezkoa litzateke Nafarroan jada burutu izan den lan eta esfortzua, tokiko ekintza ezberdinetan. Hauek baliabideak izan zitezkeen eta aldi berean ekintza hauek baloratu eta aitortu ahal izango ziren. ▪ Zerrendaren baitan herri-kulturarenganako diskriminazio positiboa agertu beharko zen, batez ere azken urteetan alboratuen egon dena izan delako. Horrela ikusgarriagoa izan dadin eta talde ezberdinek egin duten eta egiten duten lana baloratzeko. ▪ Edukiei dagokionez, Zerrenda kontsultatzeko irizpide ezberdinak izan beharko ziren; herri / eskualdeka, gaika edota ondare motaren arabera. Horretarako ondasunen izendatzea erabat osatua izan beharko zen eta izaera didaktikoko informazioa eduki. ▪ Azpiegituren kasuan gertatzen den bezala, Ondare Zerrendaren eratze eta erabileraren zabaltzea eta hedapena berebizikoa da, bere sorreraren adina garrantzia izan dezakeena. ▪ Giza baliabideak ere kontuan izan beharko zituen eta hauen arteko koordinazioa ahalbidetuko zuen sare bat sortzea. ▪ Prozesuak kultura baliabideei lotuta egon behar zirela ere aipatzen da, teknika, material eta profesional ezberdinen ezagupena ahalbidetuz eta aldi berean beste prozesu edota kultura ekintzak bultzatzea.
C.- NAFARROAKO KULTURA AGENDA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erabat beharrezkoa den ekimena dugu hau, egun ez baitago Nafarroan ospatzen diren kultura ekintza ezberdinen informazio batu eta fidagarria. Honen aspektu ezberdin asko hobetuko zituen; hala nola eskuragarritasuna, koordinazioa eta baita baliabideen eraginkortasuna ere. ▪ Helburu nagusia Nafarroako kultur agenda osoa ezagutzea izango litzateke, ikusgarria egitea eta eskuragarriagoa biztanle guztientzat. Dena den, Nafarroako lurralde ezberdinen arteko kultura koordinazioa hobetzeko helburua ere sustatu beharko zuen. ▪ Agendak bere baitan ekitaldi guztiak bildu beharko zituen, deskribapenarekin bat (mota, ordua, tokia, etab.), eta kontsultatzeko filtroak izan beharko zituen (gaika, herrika, eskualdeka,

1.- KULTURA BALIABIDEEN INFORMAZIOAREKIKO ESKURAGARRITASUN ETA IKUSGARRITASUNA

azpiegituren araberakoa, etab.)

- Agenda web orrialde batean egon beharko zen eta elkarlan eta koordinazio izaera izan beharko zuen. Horrela, Agenda Koordinatzaile eta Gestoreen eskutik osatua egon litzateke baina aldi berean ekintzak bultzatzen dituzten alde eta elkarte ezberdinen eskuetatik. Hau lortzearren jarraibide erraz bat garatu beharko zen informazioa igotzeko eta baita erabilera egokirako konpromezua.
- Agenda dinamikoa izan zedin oso garrantzitsua litzateke, bertaratzen den publikoak ekitaldiak baloratze ahalbidetuz, beste arlo ezberdinetan egiten de era berean (hotelak, etab.)
- Agenda burutzerako mementoan jada martxan dauden ekimenak aztertu beharko ziren eta, beste mailatan, antzerako xedea dutenak.
- Oso interesgarria izango litzateke Kultura Agenda Azpiegituren Maparekin eta baita Ondare Baliabideen Zerrendarekin ere erlazionatua egotea, kulturarenganako eskuragarritasuna hobetzeko tresna unitatea izanez, kultura langile profesionalentzat tresna garrantzitsua izango zen heinean.
- Beste tresnekin gertatzen den bezala, Nafarroako Kultura Agenda Kultura Zuzendaritza Nagusiak koordinatu beharko zuen eta eskuragarritasun unibertsala bete beharko zuen. Argi dagoenez elebiduna izan beharko litzateke.

2.-IKUSGARRITASUNA ETA BALORATZEA

A.- SORMEN SEKTOREAREN IKUSGARRITASUNA ETA BALORATZEA

- Kultura dinamika eta sormenaren aniztasuna ikusgarriagoa egitearren kultura agente ezberdinen arteko **koordinazioa hobetzea** erabat beharrezkoa dela uste da. Koordinazioaren gabezi honek toki eta garai zehatzetan gehiegizko kultura ekintzak antolatzea eragiten du, batak besteen gaintik gainjartzen direlarik.
- Honi lotuta administrazioak sortzaileak gehiago lagundu beharko zituen espazio eta baliabideak erraztuz eta baita diru laguntzen sistema berrikusiz ere, hauek ekintza zehatzak baino kultura proiektu osoak saritu ditzaten.
- Diru laguntzen deialdiak ere ekintza ezberdinen gainjartzean bere garrantzia du; izan ere, egun duen diseinua dela eta, urteko une jakin batzuetan soilik ekintzak antolatzen bultzatzen du.
- Ikusgarria izan behar da, ez soilik kultura produktua, baizik eta hura sortzeko prozesu guztia ere eta baita sortzailea ere eta hauek baloratzea kultura ekintzaren zati garrantzitsu bezala.
- Zehazki teknikak, pentsaerak, produkzio erak, hizkuntza era prozesua beraren balioek immateriala den ondare gisa garrantzizkoak dira, zehazki gero eta gutxiago erabiltzen diren praktikak, eskulan tradizional ezberdinak kasu.
- Prozesua ikusgarriagoa egitearren, sormen espazioak publikora irekitzea interesgarria suertatu litzateke elkargune gisa, elkartrukerako espazio funtzioa betetzea ahalbidetuko zuena.
- Espazio jakinen espezializazioak kultura ekintza jakinak ikusgarriagoak izate ahalbidetuko zuen, oro har beste ekintzen artean nahastuta agertzen direnak ikusgarratasuna galtzen dutelarik.
- Beste alde batetik, espazio jakin batzuk beste sormen proiektu ezberdinak jasotzea komenigarria litzateke.
- Sormenaren ikusgarratasuna handitzeko asmoz kultura arlo ezberdinen arteko elkarguneak bultzatu behako ziren sinergiak sortu zituzten.

B.- HERRI KULTURAREN IKUSGARRITASUNA ETA BALORATZEA

- Kultura herritarra bizi eta mantentzen duen edonor tekniko eta ekonomikoki laguntzea beharrezkoa da erabat.
- Helburu hori lortzearen kultura herritarra bultzatzen duten agente ezberdinak profesionalizatu behar dira, izan ere, egun kasu askotan amateurrak dira.
- Ondare Legeak oso ongi mantentzen du Ondare Materiala baina ez da gauza bera gertatzen Ondare Immaterialarekin, hauek mantentzeko baliabide ekonomikoak askoz ere eskasagoak direlarik.
- Immaterialak diren ondareak Interes Kulturaleko Ondasunak izendatzeko egun dagoen sistema arbitrarioa dela uste da eta honekin batera *ad hoc* burutzen den ikerketak ez duela berez balore kulturalarekin zerikusi handiegirik.
- Eskulanan elementu ezberdin asko, kultura herritarraren parte garrantzitsuak direnak hain zizen ere galtzen ari dira artisauak gero eta eskasagoak direlako eta baita praktika hauen berritze faltagatik ere.

2.-IKUSGARRITASUNA ETA BALORATZEA

- Arlo esperimentala tradizioan oinarritzen da eta beraz bien arteko elkarguneak topatzea beharreako da, herri kultura bizirik mantentzea ahalbidetuko zutena eta kultura hau ikusgarriagoa egingo zuena, kultura diziplinen arteko fusioa eta berrikuntza puntuak sustatuko zituzten aldi berean.

C.- BESTERIK

- Administrazioak bultzatzen dituen kultura ekintzen gaineko informazioaren inguruan gabezia nabarmenak sumatzen dira.

5.-LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsoneri eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta participacioncultura@navarra.es mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren borradorearen osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.